

AZOKAK IREKI

Gaur egun, inoiz baino garrantzitsuago da komunitate eta norbanakoaren osasuna bermatzea, gertuko sareak indartzea, eta elikadura subirautzan aurrepausoak ematea, jaten dugunak bere biziko balioa hartzen duelako.

Covid-19 krisiaren aurrean insituzioek hartutako neurriei erreparatuz gero, herrietako denda, taberna, komertzioak, eta gainontzeko bilgune tokiak itxita izateko gomendioa egin dute, janari denda, farmazia eta oinarritzko bizigaien dendak salbu.

Aurrekaririk gabeko egoera honetan erabaki azkarrak hartu dira. Udalek, eraikin publikoak isterakoan, azokak ere itxi dituzte, dituen ezaugarriak eta honek lehen sektorean, iada ahula dagoena, izan dezakeen ondorioak kontutan hartu gabe.

Zalantza gabe azokak eta kontsumo taldeen bilguneak oinarritzko bizigaien guneak dira, gertuko eta garaiko elikagaiak eskuratzeko bide zuzenak eta bitartekaririk gabekoak.

Eskatzen dizuegu lekuan lekuko protokolo egokiak garatzea, Azpeitiko udalari jarraikiz, salmenta gune garrantzitsu hauek irekita mantentzeko inolako arazorik ez dagoela uste dugulako, eta momentuak eskatzen du denok eta bereziki instituzioek lehen sektorea babestea.

Lan honetarako gure prestutasuna adierazten dizuegu.

Bergaran, 2020ko Martxoaren 16an

SINATZAILEAK

